## altza

# Baque pilota txapelketa 1994



**Coca, Carrete, Javier Errandonea eta Vitoria. Lehenengo biak Altzako eskolatik ateratakoak dira. Egun hauetan pilota jokoan ikusi ahal izango ditugu.**

Gipuzkoako Pilota Federazioak eta Baque etxeak Gipuzkoa mailan antolatutako txapelketan, Donostialdea eta Bidasoa aldeko pilotariak Altzako frontoian jokatzen ari dira partiduak.

Txapelketa irailaren 13an hasi zen eta finala abenduaren 11an jokatuko da. Oraindik beraz, lehen fasea jokatzen ari dira eta partiduak astearte eta asteazkenetan izaten dira. Finaleko fasea azaroaren 22an hasiko da.

Pilotaz gozatzeko aukera ederra.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

## Formak eta itzalak

Pasai San Pedroko, Iñigo Matxain pintorearen erakusketa ikusgai izango dugu altzatar guztiok Casares Kultur Etxean datorren irailaren 28ra arte.

*«Formak eta Itzalak»* izena duen erakusketa hau astelehenetik ostiralera irekita egongo da 17.30-etatik 21.00etara.

Bere lan ibilbidean zehar erakusketa ugari egin ditu. Urcelay, Carmen Areopagita eta Ruiz de Eguinoren kritikak jasotzen dituen biptikoa erabiliz hobeto ulertu ahal izango dugu Iñigoren lana.

Kafe ona hartzeko,
BAQUÉ da garrantzizkoa.






Kafe ona hartzeko, ez da platera garrantzizkoa, ez kikara, ez kutxarila, ezta gozatu ala ez ere.

Garrantzizkoa kafea berria izatea da. Egunero xigortua, zeure hurrean. Nahasteak behar duen puntuan, zaporea bakarra izan dadin.

KAFE BAQUÉ KAFE BERRIA da, garrantzizkoena kafe ona hartzeko. Beste konturik gabe.




KAFE BAQUÉ
KAFE BERRI-BERRIA